

EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOAREN LEGE-EGITASMOARI BURUZKO BALORAZIOA



1. Sarrera.

2. Lege Aurreproiektua aurkezten den uneko testuingurua.

3. Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen aurreproiektuaren ezaugarriak.

3.1. Estatuarekiko erabateko menpekotasuna (EBEParen garapen soila).

3.2. Administrazioaren arbitrariotasuna zerbitzu publiko independentearen aurka.

3.2.1. Zuzendaritzako publikoa, kontrol politikorako ustezko teknikaria.

3.2.2. Lanpostuen indibidualizazioa, bitarteko langile mugarik gabe.

3.2.3. Behin-behinekotasuna, mugarik gabe.

3.2.4. Lansari aldakorra, men egitearen bermea.

3.3. Enplegu publikoari dagokionez, lan erreformaren helburu berbera: prekarietate eta pribatizazio gehiago.

3.4. Administrazio zentralizatua, piramidala eta gizarteari bizkar emana.

3.5. EAEko sektore publikoa osatzen duten atal batzuk erregulatu gabe.

3.6. Negoziazio kolektiborako eskubiderik gabe.

3.7. Euskara, atzerapausoak aurrerapauso gutxiren ostean.

4. ELAren proposamenak.

1. Sarrera

Estatuak Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua (EBEP) onartu ondoren, oraingo Eusko Jaurlaritzako gobernuak erabaki du, 2014ko iraillean, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea aldatzea.

ELAren ustez, lege egitasmo honen edukia guztiz larritzat har dezakegu, uko egiten baitio euskal lege bat garatzeari estatuaren enplegatu publikoaren legea ezartzearen mesedetan. Horren ondorioz herri-enplegatuen lan-baldintzak narriatuko dira, eta zerbitzuen izaera publikoa kolokan geratuko da. Egitasmo honen bidez agintekeria eta arbitrariedade nagusituko dira, eginkizunak banaka ezarriz eta sindikatuen zeregina mugatuz.

Orain aurkeztu diguten lege egitasmoan lan-baldintzak arautzen dira EAEko administrazio publikoko enplegatuentzat eta haien menpeko sozietateetako langileentzat. Lege egitasmo hau ere aplikatuko da, bere legedi propioak horrela arautzen duten gaietan: Ertzaintzan, Lurralde Historikoetako Batzar nagusietako pertsonalari, Eusko Legebiltzarreko funtzionarioei, EHUKo irakasle funtzionarioei, lan-legepeko irakasleei, eta Justizia Administrazioko funtzionarioei.

Gogoratu beharrekoa da, EBEP onesteko, Espainiako Gobernuaren eta CC OOen, UGTren eta CSI-Fren arteko adostasunaren bidez egin zela. Orduan ere ELAk kritikatu zuen legea esanez EAEren eskumenen esparruan sartzen zela, “administrazio publikoen araubide juridikoaren oinarriak eta funtzionarioen estatutu-araubidea ezartzea” baino aurrerago zihoala, eta interes pribatuen mesederako administrazioa, lan-eskubiderik gabea, sortzen zuela.

Sarrera honetan, eta eztabaidarako aukera honi eutsiz, ELAk aurreproiektu honekin eta gaur egun administrazioaren antolaketa erarekin erabateko ezadostasuna adierazi nahi du. ELAk gogoan duen administrazio publikoa honakoa litzateke: bertakoa, euskalduna, independentea, gizarte-kontrolaren pekoa, zerbitzuaren helburu izan behar dituen hiru lurraldeetako herritarren beharrianak betetzeko prest dagoena.

Parte hartzeari irekia, eta gizartetik hurbila, auto-antolamendurako gaitasun handikoa, lan-baldintza duinak dituen, langileen mugikortasunik ezaren eta independentziaren printzipioak oinarri dituen, manipulazio alderdikoia edo eroste-ahalmenaren arabera diskriminaziozko erabakiak galarazten dituen, eta administrazioan sartzeko prozedura hautagaien gaitasunean eta berdintasunean oinarritzen duena.

2. Lege Aurreproiektua aurkezten den uneko testuingurua

Eusko Jaurlaritzak azken urteotan, propaganda alde batera utzita, inoiz ez bezalako murrizketak egin dizkie gure zerbitzu publikoei, sistematik aurrekontu-baliabideak erretiratuz eta negozio-zio kolektiboaren eskubidea ukatuz.

Alde batetik, behin eta berriz eman duten aitzakia Madrildik ezarrita dagoela ez da sinisgarria, erakutsi baitute bat datozela handik agindutako gizarte-politikekin. Hautatzen dituzten politikak enplegu publikoa gutxitzeko, soldatak jaisteko, eta lan-baldintzak hondatzeko dira. Krisia aitzakia baino ez da beren ideologiarekin bat datozen murrizketak egiteko. Ez da legeztatun-kontua, borondate politikoarena baizik. Zenbat eta ahulago utzi sektore publikoa, orduan eta gehiago sustatuko den negozio pribatua.

Bestaldetik, murrizketak egiteko ematen duten arrazioa diru-sarreraren jaitsiera da. Baina jaitsiera hori zerga-politikaren ondorioa da; izan ere, gero eta permisiboagoak dira kapital-ihesarekin eta zerga-iruzurrarekin. Gainera, tributu-arloan hartzen diren erabakiak atzerakoiak dira. Diru-sarreraren mailan ere badute eraginik Madrilekin hitzarturiko defizit publikoaren mugek eta zorren ordainketek.

■ AZKEN URTEOTAKO MURRIZKETAK LAN-BALDINTZETAN ETA ENPLEGUAN:

■ SOLDATAK ETA LANEGUNA:

*2010. urteaz geroztik soldatan egindako murrizketa % 17koa izan da. Honi gehitu behar zaio 2012ko aparteko ordainsariaren murrizketa, %7,13 gehiago. Honetaz gain, Itzarrirentzako ekarpenik ez egitearen murrizketa gehitu behar zaio.

*35 orduko legearen aurkako erasoak, lanaldia luzatuz (22,5), norberaren hiru egun kenduz, (hiru horietatik bi Montorok bueltatutakoak), eta antzintasun-egunak ezabatuz.

*Gaixotasuna zigortu da, eta lan-baliaezintasunaren egoerako osagarriak kendu dira.

■ ENPLEGUA:

*2010 urtean ELAk sinaturiko mahai orokorraren akordioa urratu da. Ez da ordezkapenik egiten, eta lanpostu hutsak amortizatzen dira. Horrela milaka lanpostu publiko suntsitu dira.

Enplegu-suntsipenaren adibideak:

***Osakidetza:** 3.000 lanpostu gutxiago.

***Hezkuntza:** plantilletan egindako murritzketaren eta ikasleak/gelako ratioak igotzearen ondorioz Irakaskuntza publikoan 2.000 langile gutxiago daude.

* **Autonomia-administrazioa:** gaur egun 250 langile gutxiago daude, orain dela 4 urte baino.

* **EITB:** 2010 eta 2014 urteen bitartean plantillan 200 langile gutxiago daude.

*Honi, euskal administrazio osoan dagoen prekarietatea gehitu behar zaio. Bi adibide: 8.000 behin-behineko langile Osakidetzan eta 5.000 irakaskuntzako sare publikoan.

3. Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen aurreproiektuaren ezaugarriak

3.1. Estatuarekiko erabateko menpekotasuna

■ Eusko Jaurlaritzak uko egin dio legegintza-ahalmena garatzeari, eta Espainiako Konstituzioaren 149.1.8 artikulua eta Gernikako Estatuaren 10.2 eta 10.4 artikulua modu murritzgarrian interpretatu ditu. Lege-egitasmo hau EBEPen kopia-pega bat baino ez da.

■ Estatuko oinarritzko arauetikiko menpekotasuna erabatekoa da alde guztietatik. Ez dago borondaterik berezko arauteria bat garatzeko, alegia, gure herrialdeko errealitateari eta beharrezanez erantzungo dien arauteria garatzeko. (Ez da garatzen Lan Harremanetarako Euskal Esparrua).

■ Labur esanda, Zioen Adierazpenean “euskal sektore publikoa” laudatu arren, lege-aurreproiektu horrek desagerraraziko du, eta estatuko administrazioa atal bihurtuko.

3.2. Administrazioaren arbitrariotasuna zerbitzu publiko independentearen aurka

Enplegatu publikoek, erabakiak hartzerakoan, izan behar duten objektibotasuna babesteko, mugikortasunik ezaren eta independentziaren printzipioak daude. Bada, aurreproiektuan printzipio horien ordezkari administrazioari botere osoa aitortzen zaio, antolakuntza eta kudeaketa arloetan.

Eusko Jaurlaritzak tresnak sortu ditu, independentzia-berme horiek kentzeko; ildo horretatik ulertu behar dugu, hain zuzen: zuzendaritza publikoaren figura berria, irizpide subjektiboen arabera lansariak, arlo funtzionalen finkapena, gobernuak zehaztu beharreko administrazioen arteko nahitaezko lekualdatzeak...

Tresna horiek guztiak morrontza politikoa sustatzen dute, eta politikarien presio-ahalmena zerbitzu publikoetako langileengan, gizarte-eskubideen eta funtsezko zerbitzuen erabakiei dagokienez.

3.2.1. Zuzendaritzako publikoa, kontrol politikorako ustezko teknikaria

Zuzendaritzako publikoaren figura sortuko da. Politikarien helburuak arlo bakoitzean gauzatzeko arduradunak izango dira. Administrazioak diskreziozko eran hautatuko ditu, haien lansariak negoziazio kolektibotik kanpo geratuko da, eta politikariek ezarritako helburuen betetze-mailaren gorabeheran jasoko dute lansaria.

Figura hori funtsezkoa izango da enplegatu publikoak baldintzatzeko. Eginkizun ugari izango dute, besteak beste, txostenak prestatzea, langileen soldata erabakitzeari, mugikortasun geografiko eta funtzionala emateari eta lanpostuak amortizatzeari buruzko txostenak.

3.2.2. Lanpostuen indibidualizazioa, bitarteko langile mugarik gabe

Legeak taxutzen duen lan-sistema arlo funtzionaletan sailkatzen da, eta zuzendaritzako publikoak eginkizunak ezartzen dizkie banaka enplegatuei, kontrol sindikalik gabe. Gainera, lansariaren zati bat benetan burutzen diren eginkizunen menpean geratuko da. Sistema arbitrarioa da, beraz, eta babes gabezia sortzen du.

3.2.3. Behin-behinekotasuna, mugarik gabe

Bitarteko langilearen figuraren aldeko apustua egiten da, ez baita finkapen-formularik agertzen, administrazioak arrazoizko epe baten barruan postu horiek eskaintza publi-

koan ateratzen ez dituen kasuetarako. Ez dago formularik, administrazioak behartzen dituenik, egitura-postu huts guztiak eskaintza publikora ateratzera; bitarteko postuen egoerak denbora-mugarik gabe iraungo du.

3.2.4. Lansari aldakorra, men egitearen bermea

Oinarrizko sistema eta sistema osagarria mantentzen dira, baina kopuruak gutxiagotzeko aurreikuspena dago, lanbide-karreraren osagarri berri baten trukean; eta osagarri berri hori lana betetzearen ebaluazioaren gorabeheran egongo da, zuzendaritzakoen irizpide subjektiboaren menpean.

Behin behineko langileak ez du osagarri hau eskuratzeko eskubiderik izango. Garapen profesionala ezarri den sektorean (Osakidetza) edo berau proposatu den sektorean (adibidez Ertzaintza) zurikeria piztu eta kurtso ez erabilgarriak erostera bultzatzen da. Alde batetik, garapenean pausoak emateko agintari erdibidekoaren informe subjektiboa beharrezkoa izango da. Beste aldetik, formazioa meritu bezala aurkeztu beharko da, baina kurtso horiei buruz ez dago inolako kontrolik ez bere erabilpenari ezta ere antolakuntzari dagokionez ere.

3.3. Enplegu publikoari dagokionez, lan erreformaren helburu berbera: prekarietate eta pribatizazio gehiago

Lege-aurreproiektuak aipatu ere ez ditu egiten funtzio publikoan publikoak ez diren zenbat enplegatu aritzeko ezarri beharko ziren mugak. Zerbitzuak kanpora ateratzeko edo pribatizatze mugak ere ez dira zehaztu. Hori horrela, badiardi oraingo enplegu publikoa argaltzeko asmoa dagoela, eta ildo horretatik, lanpostuak amortizatuko direla, eta gero eta zerbitzu publiko gehiago sektore pribatura bideratuko direla.

Lan-erreformaren espiritua jaso da. Eta funtzionarioentzat ere nahitaezko lan-utzialdiak, lanaldi-murrizketak, soldata-murrizketak, mugikortasun funtzionala eta geografiakoaren aukera jaso da.

Ez dago tresnarik egitura-postu guztiak pertsonal finkoaz beteko direla ziurtatzeko, ez da finkatu enplegua, ez dago EPERik ateratzeko benetako eginbeharrik, ez da formularik proposatu eskaintza publikoan ateratzera behartzeko, ez eta zigorrik ere eginbehar hori betetzen ez duten administrazioentzat.

Sarbide-sisteman horrelako tresnarik ez dagoenez, prekarietate-tasak ikaragarriak izango dira, gaur egun behin-behineko tasak %30ean daude batez bestez. Lanean dauden egonkortasun ezaren tasa altu horiek babesgabezia sortzen dute botere politikoaren arbitrarietatearen aurrean.

Honi gehitu behar zaio, oposaketetan meritu aldia 45etik 40ra murrizten da.

Lege-aurreproiektu horretan Eusko Jaurlaritzak EBEPen interpretaziorik murrizgarria egin du, eta sindikatuak hautaketa-organoetatik kanpo utzi ditu; hori dela-eta, sindikatuak lana trahatu zaie hautaketa- edo sustapen-prozesuetan gerta daitezkeen gehiegikeriak salatu ahal izateko.

3.4. Administrazio zentralizatua, piramidala eta gizarteari bizkar emana

Lege-aurreproiektuak lehendik zeuden parte hartzeko gutxieneko tresnak ezabatu ditu. Ez du inola ere errazten partaidetza soziala edo sindikala administrazio publikoen kudeaketan.

Lege-aurreproiektuak orain arte partaidetza sindikalari irekia zen organo bakarra (Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua) deuseztatu du. Horren ordez Koordinazio Batzorde bat sortu du, non administrazioek bakarrik izango duten lekua. Organo honen konfigurazioak aukera ematen du Eusko Jaurlaritza eta Diputazio bat kontrolatzen duena (gaurko egoera) organo honen erabaki guztiak kontrolatuko ditu. Lehengo kontseilua organo aholku-emaila hutsa zen, ez zuen benetako ahalmenik politika publikoak baldintzatzeko; baina orain beste pauso bat eman da, eta ezta hori ere ez da egongo.

Lege-aurreproiektu horrek ezarriko duen eredua, administrazio zentralizatu eta botere politikoaren menpekoea izango da. Eta eredua alderantzizkoa izan beharko zen: deszentralizazio-formulak asmatu, zerbitzuak herriarregina hurbiltzeko, eta zerbitzu publikoetako langileen auto-antolatze gaitasuna sustatzeko.

3.5. EAEko sektore publikoa osatzen duten atal batzuk kanpo utzi ditu

Lege-aurreproiektuak ez du bereganatu EAEko sektore publikoa osatzen duen pertsonal osoa. Atal zabalak kanpo geratu dira: Justizia, Ertzaintza, lurralde historikoetako batzar nagusietako pertsonala, Eusko Legebiltzarreko funtzionarioak, EHUKo irakasle funtzionarioak, eta lan-legepeko irakasleak.

Eta, gainera, ez da saiatu formulak bilatzen EAEn diharduen Estatuko administrazioako pertsonala kudeatzeko.

3.6. Negoziazio kolektiborako eskubiderik gabe

Administrazioek agintekeriaren alde egin dute apustu, ez baitute onartu sindikatuen zeregina, ez eta administrazio publikoetan dihardutenak langile gisa onartu ere.

Lege-zirriborroan taxutu den negoziazio-sistema formala da guztiz, eta aldi berean, ez betetzeko baliabideak ere aurreikusten dira.

Administrazioek lan-baldintzak alde bakarretik erabakitzeke ahalmena berentzat gordetzen dituzte. Hori praktikan negoziazio kolektiborako eskubidea herri-langileei ukatzea da.

Madrildik agindutako oinarritzko arauak men egiten zaie zuzenean. Horrela, alderdi garrantzitsuen "negoziazioa", soldata eta beste zenbait, hirugarren batzuen eskuetan utziko da. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenetan eskua sartzea onartzen dute.

Egin litezkeen akordioak benetan beteko direlako bermerik ez dago; eta alde ezberdinen ordezkagarritasuna gehiengoaren joko-arauei jarraiki errespetatuko ote den ere ez da jaso.

Gobernuaren edo parlamentuaren erabakiek baliogabetu ditzakete negoziazio kolektiboaren akordioak, eta azken urteotan egin den bezala, soldata-murrizketak ezarri.

Mahai atomiko bat sortzea proposatu dute (mahai orokorra + udalak + aldundiak), negoziazioa albait gehien langileengandik urruntzeko, eta horrela negoziazioarekiko loturak hausteko, kontrol politiko handiagoa bilatzeko, eta herri-langileen lan-baldintzak beheratzeko.

Lan-baldintzak indibidualizatu nahi dira: lanbide-karrera lana betetzearen ebaluazioaren gorabehera geratuko da, zuzendaritzakoen irizpide subjektiboaren menpean. Aukera ematen da bitarteko langileek funtzionarioek baino lansari txikiagoak izan ditzaten.

Aparteko ordainsariak lansari osagarriak izango dira. Errazagoa izango da, beraz, haiek kentzea.

Baimenak eta lizentziak desagertu dira, hitzarmenetan jasota dagoenari begiratu behar zaio, baina lege-bermerik gabe.

3.7. Euskara, atzerapausoak aurrerapauso gutxiren ostean

EAEko administrazioak sortu zirela 30 urte baino gehiago igaro eta gero, administrazioen benetako euskalduntze batetik urrun gaude, eta beraz ezin zaio bermatu herritarrari zerbitzu publikoa nahi duen hizkuntzan jasotzea.

Aurreproiektu horretan ez da apustu sendorik egiten euskara sustatzearen alde. Euskarak bide begetatibotik aurrera egiten uztea, hau da, langile gazteak sartzearen bidetik, onartezina da. Euskalduntze prozesu sendo baten eza nabarmena da. Hori horrela ezin zaie herritarrei euskarazko arreta bermatu, eta ezin da bultzatu herrigintza euskaraz.

4. ELAren PROPOSAMENAK

Sarreran aipatu den bezala, ELAk gogoko duen administrazioa bertakoa, euskalduna, independentea, gizarte-kontrolaren pekoa, eta EAEko hiru lurraldeetako herritarren beharrian sozialak zuzenean betetzeko prest dagoena da.

4.1. Parte hartzeari irekia den administrazio bat, deszentralizatua eta herritarren zerbitzura.

*ELAn gogoko dugun administrazioa herritarren parte hartzeari irekita dagoena da. Gizartearen eta langileen arteko harreman horri esker, batetik, kalitatezko zerbitzua emango da, gizartearen beharrian eta eskariei egokitua, eta bestetik, gizarte-kontrola izango du administrazioaren jardueraren gainean.

*ELAren aburuz herritarren zerbitzura dagoen administrazio batek parte hartze sozialeko bideak eskaini behar ditu, zerbitzuak berak eta haiek eskaintzeko modua ebaluatzeko, horretarako erabaki zuzeneko formulak ere ezarri behar dira.

*Beste ezaugarri garrantzitsu bat administrazioaren deszentralizazioa da. Horrela, administrazioa hobeto moldatuko da zerbitzua eskatzen duenaren beharrian zehatzetara. Eredu zentralizatu batean, ordea, zerbitzuaren egitura urrunagoa da, eta kontrol politikoa nagusitzen da zerbitzuaren beraren gainean.

*Gure gogoko “euskal sektore publikoak” eragotziko luke zerbitzu publikoak arian-arian pribatizatzea, eta pribatizatuak izan direnak berreskuratzea bilatuko luke. Administrazioak zuzenean eskainiko lizkieke herritarrei oinarritzko zerbitzuak, herri-onura diru-etekinen aurretik doala ziurtatuz.

4.2. EAEko esparru publiko guztiak barne hartzen dituen Legea

ELAren irudiko legean EAEko sektore publikoa osatzen duten esparru guztiak hartu behar dira, salbuespenik gabe, gaur egun estatuko esparruan daudenak ere barne.

4.3. Lan-baldintza duinekin, eta mugikortasunik ezaren eta independentziaren printzipioak oinarri harturik, kalitatezko zerbitzu bat emateko behar den nahitaezko baldintza

ELAren ustez, legean lan-baldintza duinak ziurtatu behar dira, herri-langileen mugikortasunik ezaren eta independentziaren printzipioak oinarri hartuz. Mugikortasunik ezak eta independentziak galaraziko dute bai manipulazio alderdikoia, bai eroste-ahalmenaren araberako diskriminazio-erabakiak. Alde horretatik mugikortasunik eza herritarren eskubidea da, lan-eskubidea baino lehen. Mugikortasunik eza eta independentzia gorde beharreko ondasunak dira.

4.4. Negoziazio kolektiborako benetako eskubidea

Nahi dugun enplegu publikoaren legeak negoziazio kolektiborako eskubidea onartu behar du benetan. Alderdiak eta haietako bakoitzak lorturiko legezko ordezkartza errespetatzen dituen negoziazio kolektiboa, hitzarturikoa betetzea printzipio hautsezina izango duena, kanpoko esku-sartzerik onartu gabe, alde bakarreko erabakiak ezarri gabe, eta joko-arau demokratikoak errespetatuz. Berdintasunetik berdintasunera egiten den negoziazio kolektiboa.

4.5. Enplegua

*Gure asmoa funtzio publikoan herri-langileek jardutea da, eta helburu hori legean islatu behar da. Enpleguaren aldetik, enplegu publikoaren tasa EBeko batz bestekora hurbildu beharko ginateke.

*Zerbitzu gehiago pribatizatzea eragotzi beharko zen; alderantziz, azpikontratatu diren zerbitzuak arlo publikora itzularazi beharko ziren, gaur egungo langile azpikontratatu lanpostua bermatuz, erreferentziako herri-langileen lan-baldintzetan subrogazioa, homogeneizazioa eta homologazioa ziurtatuz, itzularazteko prozesuak dirauen artean ere bai.

*Lanpostu hutsak, ordezkariak eta plantillen egonkortasuna aintzat hartzen dituen lege bat.

*Guk sustatzen dugun lege horren arabera administrazioarako sarbidea gaitasunean eta berdintasunean oinarritu behar da, eta egitura-postu guztiak pertsonal finkoaz bete behar dira, egin behar hori betetzen ez duten administrazioei zigorra ezarri behar zaie, hori ezinbesteko betekizuna da pertsonal independentea eta objektiboa izateko.

*Aukeraketa prozesuak guztiz gardenak izatea nahi dugu. Horregatik epaimahaiaren eztabaidak publikoak izan daitezela exijitzen dugu, prozesuan parte hartzen dutenek uneoro txostenera sarbidea izan eta merituek eta gainontzeko hautagaien puntuazioak egiaztatzeak aukera izanik.

Izan ere, oraingo sarbide-sistemak bitarteko langileen egoera gehiegi luzatzea eragiten du (bitartekoen tasa %30etik gora gaur egun), eta egoera horiek gero eta kudeaketa zailagoa dute. Lege berriak irtenbide bat eman beharko lieke gaur ditugun egoera gatazkatsuei, eta antzeko egoerak berriro gertatzea eragotziko lukeen esparrua sortu.

4.6. Euskara

*ELAren iritziz, lege berriak aurrerapauso nabarmena eman beharko litzateke euskara sustatzeko bidean, benetan erabilia izan dadin, gure hizkuntza aurrera ateratzen eta finkatzen lagunduko duen ekarpen moduan.

Legeak benetako tresnak sortu beharko lituzke, administrazioa egiatan eta epe laburrean euskalduntzeko, eta horrela herritarrekin eta herri-langileen artean euskara komunikazio-tresna egokia bihurtzeko.

Horregatik, lege berriak jaso behar da administrazioa sartu nahi duten guztiei euskarazko gaitasuna aztertu behar zaiela; hau da, lanpostu guztiek hizkuntza-eskakizun bat izan behar dute, kasuan kasu handiagoa edo txikiagoa, baina nolahi ere euskararen ezaguera pasiboa ziurtatu behar da. Proposamen horretan kontuan hartuko dira bitarteko egoerek eta pribatizazioek ekarri dituzten arazo bereziak. Gaurko interinidadak datuak ikusita, instituzioak euskara ezagutza ziurtatzeko tresnak ezarriko ditu (laguntzak, formazioak, liberazioak...).

Gorago azaldutako guztiagatik, Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen Enplegu Publikoaren Lege-aurreproiektuarekin dugun desadostasuna berriro agertzen dugu. Lege egitasmo hau erroztik aldatuko duen negoziaketa bat zabaltzea eskatzen dugu. Lege bat egin dezagun txosten honetan azaldutako asmoak eta aurkezturiko 200dik gora alegazioak oinarri harturik, gure gizartearen beharretara egokitua. Transparentziaz eta inposaketarik gabe.